

TABAKALERA



**DEIALDIA
KOMISARIO
TZA
EGONALDIA**

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL
CENTER OF
CONTEMPORARY
CULTURE

tabakalera.eu



1. AURKEZPENA

Tabakalerak, sorkuntzarako gunea den aldetik, egonaldi-programa bat du, artista, sortzaile eta kultur eragileei babesa emateko. Programa honen helburu nagusia arte-prozesuetan laguntzea da, bai kontzeptuarekin bai ekoizpenarekin.

Programa honek, Tabakalerak dituen beste batzuek bezala, espazio bat sortu nahi du artistak, eragileak eta haien proiektuak elkarren ondoan garatu daitezzen Tabakaleraren baitan, egoiliar eta eragile gonbidatuen artean lankidetzak sortzeko giroa eta aukera bultzatzeko helburuz.

2. XEDEA

Deialdi honen xedea komisarioei laguntza ematea da 2019ko udazkenean Tabakaleraren erakusketa-aretoetan gauzatuko den erakusketa-proiektu bat garatzeko.

Egonaldiak lau eta zortzi aste bitarteko iraupena izango du, eta erakusketa-formatuko komisariotza-proiektua garatzeko lekua, testuingurua eta denbora eskainiko ditu. Hautatutako komisarioak bere proposamena taxutzeko aukera izango du 2018ko, otsaila eta ekaina bitartean, edo eta iraila eta abendua bitartean gauzatuko duen egonaldian.

Deialdira aurkeztutako proiektu guztietatik proposamen bakarra hautatuko da.

3. HAUTAGAIK / PARTE-HARTZAILEAK

Deialdian parte hartu ahal izango dute partzialki edo soilik arte garaikidearen sektorean proiektuak garatu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridiko nazional edo atzeritarrek, dela arte garaikidearen alorrean profesionalki —dedikazio osoan nahiz partzialean— komisariotza-proiektuak garatzen diharduten edo esparru horretan ibilbide profesionala hasi nahi duten pertsona edo taldeei.



Halaber, hainbat pertsona fisiko edo juridikok deialdira, batera, aurkeztu ahal izango dute, haien artean erlazio formalizaziorik eskatu gabe. Kasu honetan 6. klausulako azken paragrafoan jarritakoa eman ahal izango da.

4. HAUTATZEKO BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK

Proiektuak baloratzeko batzorde misto bat osatuko du Tabakalera, sektoreko profesionalak eta berezko pertsonekin. Irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- ⑩ Berrikuntza eta originaltasuna, bai proposamen kontzeptualari bai proiektuaren gauzatzeari dagokienez.
- ⑩ Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- ⑩ Proiektuaren koherentzia eta bat etortzea hautagaiak orain arte garatutako ibilbidearekin.
- ⑩ Proiektua egokia izatea Tabakalera dagoeneko jorratzen dituen lan-ildoan eta interesen ikuspegitik, erakusketa programa ere kontuan izanik.
- ⑩ Bideragarritasuna eta Tabakalera dituen bitarteko eta erakusketa-espazioetara egokitzea.
- ⑩ Aintzakotzat hartuko dira, halaber, proiektuak eta hautagaiak duen borondatea testuingurua ezagutzeko eta bertako eragileak eta proiektuko beste egoiliar batzuk bere proiektuan edota lan-saioetan txertatzeko.

Komisioak deialdia hutsik jo ahal izango du erabakitzen badu aurkeztutako proiektuetako inork meritu nahikorik ez duela ez egonaldirako ez erakusketaren antolaketarako. Era berean, egonaldi honetarako zuzendutako baliabideak beste egonaldi mota baterako edo/eta Tabakalera garatzen den beste ekitaldi batetarako esleitu ahal izango ditu.

5. FASEAK

Deialdiak bi fase izango ditu:

- ⑩ Lehenengoa, egonaldia bera gertatuko da, 6. klausulan deskribatzen den hornidura izanik honek.
- ⑩ Bigarrean, proposatutako erakusketa proiektuaren ekoizpena garatuko da, zeinean komisarioak 7. klausulan aurrez ikusitako baldintzetan Tabakalera zerbitzuak eskainiko dizkion.



6. EGONALDIRAKO ZUZKIDURA

Egonaldia Tabakalerak Donostian dituen instalazioetan egingo da. Programak prestazio hauek eskaintzen ditu:

1. Joan-etorriko bidaia bat komisarioarentzat, bere ohizko bizilekutik edo lekutik unean dagoen tokitik. Aurkeztutako proiektua kolektibo batena baldin bada, ordezkari bakarra izendatuko da solaskide izateko.
2. Asegurua medikua komisario atzerritarrarentzat.
3. Ostatua. Gela bikoitza, bainu batekin eta lanerako espazioa wifiarekin. Sukalde eta sala partekatuetara sarbidea.
4. 1.000€ egonaldiko hilabeterako, dieta eta mantenurako.
5. Lanerako espazio bat Tabakaleraren ekoizpen-gunean, oinarritzko behar guztiekin: argia, korronte-hartuneak, proiektu bakoitzerako oinarritzko altzariak.
6. Office-rako eta gune komunetarako sarbidea.
7. Tabakaleraren sorkuntza-liburutegi espezializatuko funtsetarako sarbidea.
8. Irudi eta soinu edizioko estudioetara eta plato/praktika eszenikoetarako espaziora sarbidea.
9. Baliabide teknikoak eta Tabakalerako lan-taldearen laguntza, behar eta aukeren arabera.
10. Laguntza kontzeptuala proiektua garatzeko, eta laguntza inguruko eragile eta proiektuak ezagutzeko, egoiliarak hala eskatuz gero.

Aukeratutako proiektua kolektibo batek aurkeztu badu (hainbat pertsona fisiko edo juridikok, elkarren arteko harremanak formalizatzeko 3. klausulako bigarren lerrokadan adierazitako moduak bete beharrik izan gabe), adierazitako prestazioak emango zaizkio dela kolektiboak berak izendatutako pertsona fisikoari, dela kolektiboak eskatuta eta Tabakalerak diskrezioz erabakita, erresidentziaren prestazio-zenbatekoaren kuantifikazio bitartez (posible den neurrian) eta hura esleituta kolektiboko kide bati, batzuei edo guztiei, esandako prestazioetakoren bat, zenbateko baliokide osoarekin.

7. ZERBITZUAK EMATEA

Tabakaleran 2019ko udazkenean egingo den erakusketa-proiekturako, komisarioak 30.000€ izango ditu gehienez (zergak eta atxikipenak kanpo), eta



Tabakalerak izendatutako taldearekin batera kudeatu beharko du diru hori. Zenbateko horren barruan sartu beharko dute proiektua aretoan gauzatzeko honako behar hauek: obra berrien ekoizpena, obren egokitzapenak edota lagapenak, obren garraioa, partehartzaileen ordainsariak, ostatua, dietak eta joan-etorriak; argitalpena bat eginez gero haren kostua, bai eta erakusketaren inguruan antolatutako jarduera paraleloak ere. Tabakalera izango da sortutako ekoizpenarekin lotutako lege harreman guztien titularra eta exekuzioaren ondotik ordainketak egingo dituen, harreman juridiko horien kudeaketan eta sor litezkeen ekintzatan laguntza eskainiko duen komisarioaren kalterik gabe.

Zenbateko horrez gain, egonaldiaren onuradunak 5.000€ko ordainsaria jasoko du (zergak eta atxikipenak kanpo), komisariotza-lanagatik. Ordainsariaren %40 erakusketa proiektuaren sinaduran jasoko du, eta %60a erakusketa inauguratzen denetik aurrera. Zerbitzuak eskaintzeko gauzatuko den kontratuaren gainontzeko xehetasunak Tabakalera eta komisarioaren artean negoziatuak eta adostuak izango dira, egokia irizten den unean eta kontuan hartu beharreko kontratazio arauak jarraituta

8. EGONALDIAREN IRAUPENA ETA GARAPENA

Sormena garatzeko lekua, testuingurua eta denbora eskaintzea da egonaldiaren helburua. Parte-hartzaileak lau eta sei aste bitarteko denboraldia izango du bere proiektua taxutzeko, eta bitarte horretan bere lanerako egokiak diren jardueretan parte hartzeko aukera izango du. Egonaldia 2018ko otsaila eta ekaina bitartean edo eta iraila eta abendua bitartean izan beharko du. Egonaldiaren denboraldia komitearekin adostuta izango da, Tabakalerak garatzen duen programarekin dituen konpromezuen arabera izan ahal da.

9. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdira aurkezteak honako konpromiso hauek onartzea dakar:

- ⑩ Onartutako eskaera bertan behera utziz gero, hautagaiak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko du.
- ⑩ Adostutako datetan justifikaziorik gabe lan-espaziora huts egiteak edo eta deialdian aipatutako datara egokitzen ez badira, egonaldia eta emandako laguntzak, edo/eta erakusketa bera bertan behera uztea edo modu partzial batean izatea ekar lezake.



- ⑩ Egonaldia bera eta haren inguruan sortutako jarduerak Tabakalerak egonaldi-programaren eta lan-espazioak lagatzeko programaren inguruan garatzen duen programazioan sartuko dira.
- ⑩ Egonaldiak iraun bitartean, egoiliarrek Tabakalerak egonaldien ikusgarritasunerako antolatzen dituen ekitaldietan parte hartu behar izango du.
- ⑩ Tabakalera izan eta gero, beren egonaldiari buruzko memoria bana aurkeztu beharko dute egoiliarrek.

10. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko epea **2017ko apirilaren 3tik, maiatzaren 30eko 23:59ak [UTC+2]** arte egongo da zabalik. Deialdien emaitza, **2017ko uztailaren 15ean** jakinaraziko da. Hautagaiak aste beteko epea izango du egonaldiaren onarpena egiteko.

Izen-ematea Tabakalerako webgunearen bitartez egitea beharrezkoa da; horretarako, izen-emate orria bete eta, jarraian zehazten den hurrenkeran, hurrengoko dokumentazioa atxikitu beharko da:

1. Harremanetan jartzeko datuak: izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefono-zenbakia.
2. Proiektuaren deskribapena eta hautagaiak zergatik egin nahi duten proiektuaren fase hori Tabakalerako egoiliar diren bitartean (gutxienez 500 hitz, gehienez 1000).
3. Proiektua azaltzeko lagungarri den material grafikoa edo bestelakoa.
4. Erakusketa-proiekturako aurrekontua eta beharrak.
5. Egoiliar den aldirako aurreikusitako lan-egutegia eta beharrak.
6. Egonaldirako denboraldi egokiena, lehen eta bigarren aukerak.
7. Sozietatearen CVa eta bibliografia edo historia laburra (gehienez 500 hitz).

Dokumentazio guztia PDF formatuko (gehienez 10 mega, 10 orrialde) dokumentu baten bitartez helaraziko da; dokumentuaren izena modu honetara adierazi beharko da: izena_abizena_modalitatea; adibidez: martin_bilbao_komisariotza.

Bestetik, helarazten den dokumentazioa euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez egongo da idatzita. Euskaraz edo gaztelaniaz baldin bada, laburpen bat atxikitu behar da ingelesez nahitaez.



Aukeratutako hautagaiek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte 10 eguneko epean, hautatuak izan direla jakinarazten zaienetik kontatzen hasita:

NANaren, IFKren edo pasaportearen kopia. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 6o. artikuluan deskribatutako egoeraren batean sartuta ez egotearen adierazpena. Dokumentu hau Tabakalerako web-orritik deskargatu daiteke, eta modalitate bakoitzari dagokion deialdian aurkituko da.

Kolektiboen kasuan, adierazpen horrek hautagai guztiei buruzkoa izan beharko du.

11. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileak izango dira aurkezten dituzten proiektuen egile eta originaltasunaren erantzule, eta proiektuen gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak legez dagozkiela bermatu behar dute; ildo berean, Tabakalerak modu baketsuan erabili ahal izango dituela bermatuko dute, eta berme hori beteko ez balute, Tabakalerak zuzenean edo zeharka jasan ditzakeen kalte edota galeren erantzukizunetik salbuesten dute esanbidez Tabakalera.

Hautatutako pertsonak Tabakalerari lagako dizkio proiektu osoari edo proiektuko elementuen zati bati nahiz proiektuaren garapenari dagozkion ustiapen- eta irudi-eskubideak, legez baimendutako gehieneko aldirako, mundu osoan, Tabakaleraren jardueren berri emateko argitalpen, katalogo edo liburuxkak paperean edo digitalean argitaratzeko edo jardueraren sustapenerako, baina merkataritza-jarduerak esanbidez alde batera utzita.

Aukeratutakoak Tabakalerari bere izena deialdi honen xedeen barruan komenigarritzat jotzen duen moduan erabiltzeko baimena emango dio, esanbidez.

12. DATUAK BABESTEA

Deialdi honetan emandako datu pertsonalak Tabakaleraren fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau, deialdiaren administrazio-kudeaketako jardunak, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko, eta parte-hartzaileek onartu egin behar dute beren datuak fitxategi horretan sartzea. Horri dagokionez, helbidea honako hau izango da: Tabakalera, Andre zigarrogeleen plaza, 1, Donostia. Parte-hartzaileak bere laguntzaileren baten datu pertsonalak



ematen baditu, datuak Tabakalerari xede bererako jakinarazteko haren baimena izan beharko du.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak posta elektronikoa bidez baliatu behar dira; mezu elektronikoa sortzaileak@tabakalera.eu helbidera bidali, gaia honako hau duela: “sartzeko baimenak” mezuarekin batera datuen titularrak sinatutako gutun bat ere aurkeztu beharko da, eta jakinarazpenak jasotzeko helbide bat adierazteaz gain, NANaren edo antzeko beste dokumentu baten kopia ere bidali behar da.

13. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek Tabakalerako guneetan hartutako irudietan (argazkiak, bideoak, eta abar) ager daitezkeela onartuko dute, gero informazioa emateko edo sustapenerako erabiltzearren; era berean, erabilera hori baimenduko dute.

Hori guztia ohorerako eskubidearen aurkako erabilera edo aplikazio guztiak alde batera utzita, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan aurreikusitako moduan. Eremu horretakoa ez den beste edozein erabilera baimen honetatik kanpo geratzen da.

14. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdian parte hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info +:

sortzaileak@tabakalera.eu

www.tabakalera.eu